

científica de sus obras, de su riguroso método y de su extraordinaria sensibilidad para abrir puertas y corazones.

Nada nuevo ni exagerado hay en la afirmación de que las obras de Juan Garmendia Larrañaga constituyen hoy uno de los pilares fundamentales para conocer nuestro mundo tradicional, y en particular *Conjurios no siempre ordoxos/ Beti ortodoxoak ez diren konjuruak* supone no sólo un aporte más en este esfuerzo, sino probablemente el último y definitivo que quepa esperar sobre unas creencias ya casi agotadas.

Para terminar no podemos dejar de subrayar la calidad de la edición enriquecida por ilustraciones de Néstor Basterretxea, asiduo colaborador de este autor, y con fotos de Javier Juanes.

Antxon Aguirre Sorondo



JIMENO JURÍO, José María (dir.)
NAFARROA Toponimia eta Mapagintza = Toponimia y cartografía de Navarra
Pamplona/Iruña : Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra. 50 ale. 1992-1999.

Oraingo honetan liburu bakar batez iharduki beharrean bilduma oso batez mintzatu behar dugu, *Nafarroako Toponimia eta Mapagintza / Toponimia y Cartografía de Navarra (NTEM)* izena duenaz hain justu ere. Bilduma honetan Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak lehengoak, ez oraingoak hornitutako diruaz TRACASA enpresarekiko lankidetzan aurrera eramanean proiektuaren fruituak biltzen dira. Zernahi dela, enpresa horren parte-hartzea ez zen proiektuaren sortzaile, bultzatzaile nagusi eta zuzendaria izan den Jose María Jimeno Jurio langile saiatuaren hastapeneko asmoetan azaltzen, gero zegokionari egoki iruditu eta zeregin guztiak haren bitartez bideratu baziren ere.

Lanaren hazia Artaxoako ikertzaileak aspaldidanik burutan zuen Nafarroako toponimia txiki guztia biltzeko nahikaria izan zen, bera Iruñerrian egiten ari zenaren jarraipen moduan edo. Horretarako toponimia gaiez arduratzen ginen bakanekin harremanetan jarri zen Jimeno eta bilkurak egiten hasi ginen *bilkuritisa* da Euskal Herriaren gaitzik handienetako bat; zenbat ordu ematen ote dira mota guztietako asanblada, bilera, bilkura, batzar eta bestelako elkarretaratzeetan!, proiektua aitzina nola eramanean zitekeen ikusi nahiz. Bilkura haien ondorio izan zen aurreneko lan saioa, zorigaitzez uste baino lehen, arrazoiak garbiroegi ez dakuskgigula, porrot egin zuena. Gero Nafarroako Hizkuntza Politikaren arduradun nagusi izendatu berria zen Estebe Petrizanekilako harremanak hasi ziren eta, azkenean, uroski, gorago aipatu dugun enpresaren bidezko lankidetzan hautatu zen proiektua burutzeko.

Lanaren koordinatzailea Mikel Belasko toponimia ikertzaile ezaguna izan da urte hauetan guztietan. Jimeno eta Belaskorekin batean talde zabala aritu da lanean, garai batean edo bestean, luzaz edo denbora gutxiz, arlo honetan edo hartan, filologo eta hizkuntza arloko jendea eta geografo-historialariak gehienak: J. M. Bidador, M. Etxegarai, J. Goldaratz, P. Goñi, M. Iriarte, R. Iso, M. Muxika, J. Urdirutz... eta behar bada tintontzian gelditu zaigun beste bakarren bat. Bulegari lanak M. Goikoetxearen gain egon ziren hasieran eta C. Okiñenaren bizkar geroxeago; mapak prestatzearen ardura E. Hercearena izan zen eta hizkuntza aholkularitza A. Iñigo, M. Melero eta P. Salaberriri egokitu zitzairen. Seguru tartean beste batzuk ere izan direla, baina lan gehiena, nolabait erran, aipatutako horiek itzulikatu dute. Ezin ahaztu, buruenik, Nafarroako Hizkuntza Politikaren gidaritza eraman duten E. Petrizan, J. M^a Rodríguez Otxoa, Fdo. Perez de Viñaspre, J. L. Mendoza, M. Amigorena eta J. R. Elortzen bultzada eta laguntza.

Toponimoak arautzeko irizpideak gerok erredaktatu genituen eta Euskaltzaindiaren Onomastika batzordean aurkeztu. Honek onetsi ondoan toki izen bakoitzaren aldaera nagusia finkatzeko erabili ziren, gero, arian-arian, uste izatekoa zen bezala, hasmentako irizpide haiek osatu eta findu beharrean gertatu baziren ere.

1990.eko udaren bukaeran irailean jarri zen abian proiektua, urte horretako azken hilabeteetan lanaren eragozpen, oztopo, traba eta zailtasunak ikusi eta hurrengo urtetik aitzina taldeak hobeki funtziona zezan oinarriak paratzeko. Hau da, 1990.eko udazkena saiotzat erabili zen, gero heldu zenaren entsegutzat, lanaren nolakoa, luze-laburra eta aitzin-gibelak gertutik ikusi eta oker-makurrak aurrez zuzendu ahal izateko. Hurrengo lau urteetan, 1991-1994 epean biak barne garatu zen proiektua eta azkeneko urteotan bukatu da orduan karrikatzen hasi zen liburuki berdexken bilduma, denera berrogeita hemeretzi alek baino gehiagok osatzen dutena. Liburuki kopurua ikusirik pentsa daitekeenez, gaitzeko lana da azken hamarkadan Nafarroan egin dena, bertako toponimia ezagutzeko oinarri-oinarrizkoa. Liburuez landa, osotara 400.000 mila sarrera baino franko gehiago dituen datu basea apailatu da, ez baita gutxi!

Lan arrunt garrantzitsua da, beraz, Jimeno Jurioren zuzendaritzapean Nafarroan burutu dena, herrialde honetako toki izendegia hobeki ezagutzeko abagunea ematen baitu. Aipatutako datu base horretatik abiatu hamaika lan egin daitezke etorkizunean hainbat arlotan, onomastikatik beretik hasi eta historiaraino, datu horiek ikertzaileen helmenean ezartzen badira behinik behin.

Liburuei dagokienez, derragun toponimoak aurrez finkatutako fitxa edo eredu baten arabera moldatuak direla, non lehenik dokumentazioko aldaerak ageri baitira, eta gero egungo ebakera, mapako kokapena, toponimoak izendatzen duenaren nolakoa (aurkintza, auzoa, baserria, erreka, iturria...) eta oharrak. Jakina, leku izen guztietan ez dira datu horiek guztiak azaltzen, usu bat edo bestea falta delako; erraterako, bizirik dauden hainbat toponimo ez dira inoiz dokumentazioan agertzen. Egungo ebakerari eskaini puntuan azentu nagusiak non dauden erraten da, bai eta, berebat, datua zer hizkuntzatan bildua izan den ere, ezaguna den bezala ahoskera, ardura, aldatu egiten baita, toponimoa jaso izan den mintzairaren arabera. Oharretan, buruenik, leku izenaren azterketa etimologikoa egiten da zenbait aldiz, eta hamaika azalpen historiko, etnografiko... gehitzen beste zenbaitetan, irakurlearen mesederako.

Liburuaren hastean, aurkezpenaren eta sarreraren ondotik, hainbat xehetasun ematen dira, irakurtzailearen lanaren lagungarri: toki izen bakoitzaren tratamendua,

artxiboen eta bibliografiaren siglak, erabili diren iturri argitaragabeen zerrenda, bibliografia eta informatzaile izan direnen izen-deiturak, adina, lanbidea ez beti eta (sort)herria, inkesta egiteko erabilitako hizkuntzaz beste.

Toponimo zerrenden ondotik, bukaera aldean, "izen geografiko eta generikoen bilduma" sartu da azken urteotako liburu gehienetan, hasierakoetan horrelakorik ez bazegoen ere. Hots, toponimian asko eta askotan aurkitzen ditugun terminoen azalpena egiten da, bakoitzaren adiera eta nondik norakoa xeheki emanaz. Hurrengo atalean toki izen historikoen zerrenda dator eta honen segidan liburuan ukitu diren leku izenen aurkibide orokorra. Amaieran aztergai hartu den herriak edo ibarrak Nafarroan duen kokagunea zehazten da, eta jarraian toponimoak biltzen dituzten katastro mapak gehitzen dira.

Hortaz, eta erran bezala, gaitzeko lana da mintzagai hartu dugun hau, hein handi batean bere zuzendariaren ahaleginei esker burutua. Orain lasai erran dezakegu duela hamar urte baino aise sakonkiago ezagutzen dugula Erresuma zaharreko leku izendegia, eta datuak hor daude, ikertzailearen beha. Dagoeneko fruitu batzuk ematen hasia da lana, eta ez dugu dudarik egiten etorkizunean bilduma honetan oinarritutako artikulua eta liburuak ugaltu direla.

Zernahi gisaz, ez da pentsatu behar, zenbaitek egin duten moduan, Nafarroako toponimia guztia bildua eta aldean beste, burutik burura azterturik dagoela. Kontuan hartu beharra dago egin den toponimia bilketa, izugarria izan den arren, ez dela aski izan herri bakoitzeko toponimo historiko guztiak jasotzeko, eta ahoz hartutakoek ere, ziurrenera, ez dutela ahitzen leku izen bizien altxorra, zorionez gure toponimia hagitzen aberatsa baita. Erran nahi dugu *NTEM* lanak nafar toponimiaren ikerketarako oinarri sendoa paratu duela, baina hori ez dela tesi batean edo bestelako monografia batean egin daitekeenarekin nahasi behar. Alegia, hemendik aitzina egiten den edozein toponimia lanek aintzat hartu beharko du *NTEM*, baina hondarreko honek ez du agortzen gure leku izendegi joriaren emaria.

Bukatzeko, nabarmendu nahi dugu liburuki horietan egiten diren azterketa etimologiko batzuk benetan jakingarriak diren arren, beste batzuetan horrelakorik ez dagoela, hots, desoreka badela ale batzuetatik besteetara, normala den bezala, denak ez baitira esku beretatik atera, egileak ez baitira beti berberak izan; hau, dena dela, aise konpon zitekeen koordinaketa zorrotzagoarekin. Azkenik, gauza batzuk tarrapatuta bezala eginak izan direla irudi du eta toponimoak ez dugu uste beti ongi arautuak daudenik; arlo honetan ere, berriro, alde handia ikusten da, zenbait aldiz, herri batzuetatik besteetara. Nolanahi ere, eta erran bezala, munta handiko lana da *NTEM*, Nafarroako toponimiaz genuen ezagutza ehunez biderkatu baitu, gutxienean kontuan.

Patxi Salaberri Zaratiegi